

2017 OTS 22

ZUBIETAKO ERRAUSTEGIAREN FINANTZAKETA ARGITUZ

MOZIOA

SARRERA	730	IRTEERA	
ENTRADA		SALIDA	
OPERA/HORA: Erraustegia = Ruina:			

Udal honetako EH Bilduko zinegotziok dokumentu hau jaso genuen. *Gipuzkoako udalak zorpetuta 2051 arte* izenburuarekin, Zubietan eraiki asmo den erraustegiaren inguruko hainbat informaziorekin. 2051. urtera arte Gipuzkoarrak zorpetuko dituen proiektu honek, gutxienez, 20.738.944,64€ko kostua izango omen du bergararrontzat. Kopuru hori, gainera, gipuzkoar guztion artean banatuko omen da, bereizte tasak eta sortutako errefus kopuruak kontuan izan gabe.

Erraustegiak ingurumenean, osasunean eta ogasunean eragingo dituen kalteak begi-bistakoak iruditzen zaizkigun arren, arazoa ez da hor bukatzen. Azken hilabeteen erraustegiaren inguruan hainbat plataforma eta elkartek egindako helegiteak ere ezagutu ditugu. GuraSOS taldeak idatzi duen *"DOSSIER DE PRENSA SOBRE LA AUDITORIA PRELIMINAR DE LA VIABILIDAD LEGAL Y ECONOMICO-FINANCIERA DEL PROYECTO DE LA INCINERADORA"* aztertu ondoren edozein herritar serio larritzeko adierazpenak eta eskaerak egiten dira bertan.

- Legeak agintzen duen herritarren partaidetza ukatu dela.
- Ingurumen legeak urratu direla.
- Europako eta bertako kontratazio legeak ez direla betetzen.
- Enpresek herritarron dirutik %26raino irabaziak izango dituztela.
- Egonkortasun legea urratzen dela.

Balizko urraketa eta ordaindu beharreko kopuruen aurrean, Bergarako Udalak honako galderak luzatu nahi dizkio Gipuzkoako Foru Aldundiari:

- Aldundiari, 4/2007 Foru arauak partzuergoek egiten dituzten epe luzerako zorpetze eragiketak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren baimena behar dutela dio, Ogasun eta finantza departamenduak jarritako baldintzetan. Horrelako baimenik eman da? Horrela balitz zein baldintzatan?
- Aldundiko kontu-hartzaileari eta ogasun eta finantza departamenduari, hurrengo urteetan GHK partzuergoak ordaindu behar duen, "PPD" deritzon, finantza pasiboa dagokion moduan kontabilizatu da partzuergoko eta beraz Aldundiko zorren artean?
- Zenbat igo da edo igoko da, Gipuzkoako Aldundiaren zorpetze maila, GHK esleitu behar duen zor berri honen ondorioz?
- Jakinarazi zaio MHAP ministerioari GHK SAU eta GHK partzuergoaren egoerak eta hauen eraginak Aldundian egonkortasun legeari dagokionez?
- Noiz jarri behar du martxan Aldundiak legeak agintzen dion partaidetza prozedura?
- Egin da legeak agintzen duen beste aukeren konparaziorik jakiteko aukera ekonomiko eta eraginkorrena dena? Non dago txosten hori?
- Zer irizpideren arabera finantzatuko da zor hori?

7/1985 araubidearen 26. artikuluaaren arabera hondakinen tratamendua Udaloari dagokigun heinean, prozesu hau bergararron interesen kontrakoa dela ondorioztatuz gero, Bergarako Udalak konpromisoa hartzen du egon daitezkeen beste aukera batzuk aztertzeko.

Bergaran, 2017ko otsailean
Bergarako EH Bildu

AITOR ARANZABAL

72575715-C

[Signature]